

«Arloa»

1

2018-07-24an EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 24-07-2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

María Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Nestor Arana Arexolaleiba
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko uztailaren 24an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Edorta Barandiaran Garcia.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 24 de julio de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Edorta Barandiaran Garcia.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA42XHE>



1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2018-06-26an egindako osoko bilkuraren akta onartu da.

2. ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2018ko uztailaren 18ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 14/2018 kreditu aldaketa espedientea onartzeko Alkate erabakiaren berri.

Alkateak doluminak adierazi ditu Edorta Barandiaran zinegotziaren aitaren heriotzarengatik, zeinaren hileta atzo arratsaldean egin zen.

3. ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoitztua egoteagatik edo beste arrazoiren batzuengatik aurreko ekitaldiengatik kobrau gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA	ZERGATIA
URA/201702/726	3.565,00	EMETERIO GALLASTEGI GOICOLEA	E66/2018
URA/201702/650	2.047,58	NIEVES EZCURRA ARAMBURUZABALA	E270/2018
PV/201701A/23	290,54	ETXEBIZITZA KOOP GESTIO INTEGRALA SL	E268/2018



BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoien batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrein baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

4. 2017KO KONTU OROKORRAK ONARTZEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2017ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, Udalaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera, eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren aurrekontuaren kitapenak.

2018ko ekainaren 13an egindako bilkuran Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2018ko ekainaren 20an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunet, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2017ko ekitaldiko Udaleko kontu orokoren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2018ko ekainaren 13an egindako Kontu Batzorde Berezian hasiera batean onartu ondoren, eta 2018ko ekainaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

5. “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA” ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA PROIEKTUA” izeneko zerbitzua GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEARI esleitzea, honako baldintza hauetan:

- **Iraupena:** Zerbitzua 2018ko irailaren eta 2019ko ekainaren bitartean eskainiko da.
- **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 6.604,39 eurokoa izango da (BEZ barne) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren % 40a, hau



da, 2.641,75 €, 2018ko abenduan ordainduko da eta gainontzeko % 60a, hau da, 3.962,64 €, 2019ko ekainean.

- Horretarako, esleipendunak aurrez faktura aurkeztu beharko du, zerbitzuko arduradunaren onarpena izan beharko duena.
- **Baldintza teknikoak:** Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Gipuzkoako Bertsozale Elkartea kontratatuko dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

Bigarrena.- 2.641,75 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da, 3.962,64 €, 2019. urteko aurrekontuaren kontu.

Hirugarrena.- Ahalmena ematea Alkateari aurreko baldintzetan oinarritutako administrazio kontratua sina dezan.

6. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAREN ALDAKETA HASIERA BATEAN ONARTZEA. 13. ERANSKINA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA

Zerbitzu publikoen eta jarduera administratiboen tasa arautzen duen Ordenantzaren 13. eranskina “ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA” aldatzeko proposamena ikusita, bertaratutako zinegotzi guztiak aho batez erabaki dute Udalbatzarrari hurrengo erabaki proposamena egitea:

Lehenengoa.- Hasiera batean eta ERANSKINEAN jaso bezala onartzea proposatutako aldaketa.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharak egin ditzan.

Hirugarrena.- Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki beririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

ERANSKINA

13. ERANSKINA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA

1.- Esparrua



Arautegi hau etxez etxeko lagunza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa nahiz beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa edo beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa.

2.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

1. Tasa ordaintzera behartuta daude:

- a) Etxez etxeko lagunza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.
- b) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.
- c) Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkatutako pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta ordezkatutako pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.
- d) Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskuadatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularrak ezin badio aurre egin legokiokeen prezio publikoaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Tarifa:

Gehienezko tasa hau aplikatuko zaie erabiltzaileei:

Laneguneko ordua	15.-€
------------------	-------

4.- Ekarpenen koadroa

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarprena:

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarprena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

EAEAP sarrerak	LAGS sarrerak	Ekarpena
-----------------------	----------------------	-----------------



EEAAPren ≤%120	LAGSren ≤%75	%1,5
>%120-125	>%75-78	%4
>%125-130	>%78-81	%8
>%130-150	>%81-94	%15
>%150-175	>%94-110	%24
>%175-200	>%110-125	%35
>%200-225	>%125-140	%48
>%225-250	>%140-155	%61
>%250-275	>%155-170	%74
>%275-300	>%170-190	%87
EEAAPren >%300	LAGSren>%190	%100

5.-Ondarea zenbatzea

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

Kide kopurua	Gehienezko ondarea
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€



6.- Libreki erabiltzeko zenbatekoa

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da LAGSren %100ri dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetza unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, LAGSren %40 gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta LAGSren %30 gainerako kideetako bakoitzagatik.

7.- Kobrantza

Zerbitzua hilero kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.

7. ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK) KONTRATATZEA: ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEA.

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, Udalbatzarrak, aurrez eztabaidatuta, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratuari kalkulatutako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 154.748,08 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 32.497,10 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

BIGARRENA.- 187.245,18 euroko gastua onartzea 2019ko aurrekontuaren kargura.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta dagokion iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAOn) argitaratzeko agintzea, ondoren kontratatzalearen profilean argitaratzeko, nahi duenak proposamenak aurkeztu ditzan 2018ko irailaren 21a baino lehen.

BOZKATU AURRETIK IZANDAKO EZTABADA:

2018/07/24
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario
7



Hitza emanda, Josu Ezkundiak oso modu orokorrean eman du kontratazio baldintza agirietan jasotako berritasunen berri, gehienak, ingurumenarekin lotutakoak.

Nestor Aranak, kaleak garbitzeko zerbitzua lehiaketara atera behar dela aprobetxatuz, kontzientziazo kanpaina bat egiteko aukera planteatu du, jendeak gutxiago zikindu dezan.

Josu Ezkundiak erantzun dio kanpaina hori Mankomunitateak ematen duen hondakin bilketa zerbitzuarekin lotuago egongo litzatekeela, eta bere garaian egin bazen ere horrelako proposamen bat, ekimenak ez zuela aurrera egin herri bakoitzak zerbitzua emateko bere berezitasunak dituelako.

Rafa Bernal, baldintza agirien ingurumen alderdiak baietsi ondoren, Nestorrekin proposatutako kanpaina egitearen alde agertu da.

8. ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA: ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEA.

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, Udalbatzarrak, aurrez eztabaidatuta, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzako udalerriko berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko, horien mantentze-lanak egin eta garbitzeko zerbitzua prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko expedientea onartzea. Kontratuari kalkulatutako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 113.032,06 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 23.736,73 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

BIGARRENA.- 136.768,79 euroko gastua onartzea 2019ko aurrekontuaren kargura.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta dagokion iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAOn) argitaratzeko



agintzea, ondoren kontratatzalearen profilean argitaratzeko, nahi duenak proposamenak aurkeztu ditzan 2018ko irailaren 21a baino lehen.

9. GALDE-ESKEAK.

Aitor Zubizarretak ondorengo galderak egin ditu:

9.1.- "Gatzbidea" izeneko ibilbidea.

"Gatzbidea" bezala ezagutzen den ibilbidea berreskuratzearena nola dagoen galdetuta, Josu Ezkurdia erantzun dio Eusko Jaurlaritzari proiektua finantzatzeko diru laguntza eskatzeko beharrezko dokumentazioa prestatzen ari direla.

Lehenengo faseari ekitearen alde agertu da Nestor Arana, esan du fase hori ibilbidea seinaleztatzea eta ura duten zatiak konpontzea izan daitekeela. Uste du etorkizunari begira jarduera gehiago planteatu beharko liratekeela.

9.2.- Ikurrinari omenaldia.

Aitorrek adierazi du bere taldeak, orokorrean, jaiei buruzko balantze positiboa egin duela, baina, kontu batekin ez daudela erabat ados. Ikurrinari egindako omenaldiari buruz ari dela esan du, ez zela antolatu udalbatzarrak aho batez bultzatutako ekitaldi bat bezala. Kontuan izanik horrelako ekitaldieta rako erabateko adostasuna dagoela udalbatzarrean, esan du batasun hori transmititu beharko litzatekeela udalbatzar osoak deialdi bateratua eginda herriari, eta bere ustez dei hori bando bidez egin beharko zen.

Beste ekitaldi bat gehiago bezala, inolako publizitate berezirik gabe, antolatu zela erantzun ondoren, Josu Ezkurdia ados agertu da eta proposamena onartu du etorkizunari begira.

9.3.- Espiel herriko agintariak San Pedro jaietako ekitaldian.

Aitorrek, kontzertu batean zegoela Espieleko alkatea jaietako ekitaldiren batean parte hartu zuela jakin zuela jakinarazi ondoren, galdera hauek egin ditu: nork gonbidatu zuen? Zenbat kostatu zitzaion Udalerri? Ba al dago beste konpromisorik-senidetzerik herri horrekin?

Josuk erantzun dio: Eskoriatzako alkateak, bere izenean, Espielera egindako bisitari erantzunez egin zen, eta baita bisita horrek herri horretakoak diren eskoriatzarren artean izan zuen oihartzunarengatik ere. Kostea 35 euro ingurukoa izan da, eta senidetzeari dagokionez, ez dago horrelakorik eta ezta inolako konpromisorik ere, horrelakoak izateko erabakia hartzea Udalbatzarrari baitagokio, eta ez da horrelakorik hartu.

8.4.- Nestor Arana zinegotziak bere karguari uko egitea



Nestor Aranak jakinarazi du lan kontuak direla-eta bere kargua utzi beharra duela, eta kargua laster utziko badu ere, bilkura hau aprobetxatu nahi duela agurtzeko. Esan du oso gustura lan egin duela, nahiz eta oposizioan egonda gura beste ezin egin ahal izan.

Esandako hitzak eta karguan izandako denboran egindako lana eskertu dizkio Alkateak.

Bilkura jarraitzen zeuden pertsonetako batek, Maider Otamendik, EH Bilduren izenean ari dela esan duenak, egindako lana eskertu dio eta pena adierazi du alderdia bera eta bere lanarik gabe gelditu beharko delako.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:00etan amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



1. APROBACIÓN DEL ACTA DE SESIONES ANTERIORES

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión de fecha 26/06/2018.

2. COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 18 de julio de 2018 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta del acuerdo por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos N°14/2018.

Al Alcalde expresa sus condolencias por el fallecimiento del padre del concejal Edorta Barandiarán, cuyo funeral se celebró ayer por la tarde.

3. BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a

CONCEPTO/PLAZO/Nº	CANTIDAD €	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
URA/201702/726	3.565,00	EMETERIO GALLASTEGI GOICOLEA	E66/2018
URA/201702/650	2.047,58	NIEVES EZCURRA ARAMBURUZABALA	E270/2018
PV/201701A/23	290,54	ETXEBIZITZA KOOP GESTIO INTEGRALA SL	E268/2018



SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

4. APROBACION DE CUENTAS GENERALES 2017

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2017, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación, junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento.

En sesión de fecha 13 de junio de 2018 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 20 de junio de 2018, fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

Con base a quanto antecede, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

“Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2017, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 13 de junio de 2018 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 20 de junio de 2018, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado.”

5. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA”

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Euskera y Deportes, el pleno, por unanimidad ACUERDA:

Primero: Adjudicar a GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA la prestación del servicio “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA PROIEKTUA” en las siguientes condiciones:



- **Duración:** El servicio se ofrecerá entre setiembre de 2018 y junio de 2019.
- **Precio y plazos de pago:** El coste total del servicio será de 6.604,39 euros (IVA incluido), y los plazos de pago serán los siguientes: el 40% del servicio, esto es, 2.641,75 €, se abonará en diciembre de 2018, y el 60% restante, esto es, 3.962,64€, en junio 2019. Para ello, previamente el adjudicatario presentará factura que deberá contar con la aprobación del responsable del servicio.
- **Condiciones técnicas:** Las características propias de la prestación objeto de este contrato exigen que el contrato se lleve a cabo necesariamente en euskera. Por lo tanto, todas las relaciones (tanto escritas como orales) que se generen con los ciudadanos y con el Ayuntamiento para cumplir el objeto del contrato serán íntegramente en euskera. Además, los trabajadores que contrate Gipuzkoako Bertsozale Elkartea para realizar el proyecto deberán de tener el nivel lingüístico suficiente para llevar a cabo el proyecto en euskera.

Segundo: Aprobar el gasto de 2.641,75 € con cargo a la partida 0400.226.335.00.08 del presupuesto de este año, y el resto, esto es, 3.962,64 €, con cargo del presupuesto del 2018.

Tercero: Facultar al alcalde para firmar el contrato administrativo en base a las condiciones anteriormente citadas.

6. APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACION DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA TASA POR PRESTACION DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS. ANEXO 13: TASA POR PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

Vista la propuesta de modificación que respecto al Anexo 13 de la Ordenanza reguladora de las Tasa por prestación de servicios públicos y actividades administrativas: **TASA POR PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO**, por unanimidad de los corporativos presentes se acuerda :

Primero: Aprobar inicialmente y en los términos que constan en el ANEXO la modificación propuesta .

Segundo: Someter a información pública por el plazo de 30 días el referido acuerdo a efectos de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse.

Tercero: El acuerdo de modificación devengará definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna.



ANEXO

ANEXO 13.- TASA POR PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

1.- Ámbito

La presente normativa será de aplicación al Servicio de Ayuda a Domicilio, bien en régimen de gestión directa, bien en régimen de convenio con otras entidades públicas, bien en régimen de concierto, convenio o contrato con entidades privadas.

2.- Personas obligadas al pago

1. Estarán obligadas al pago de la tasa:

- a) Las personas físicas que se beneficien directamente del Servicio de Ayuda a Domicilio, cuando no se encuentren en los supuestos de los apartados b) y c) del presente párrafo 1.
- b) Cuando las personas usuarias del servicio sean personas menores de edad estará/n obligada/s al pago la persona o personas que ostente/n la patria potestad, la tutela o la custodia.
- c) En el caso de las personas adultas, cuando actúen a través de representante legal o guardador/a de hecho en los términos previstos en la normativa de acceso, estarán obligadas al pago estas últimas, si bien, en tales casos el pago se hará con cargo a la renta y el patrimonio de la persona representada y la capacidad económica computada será la de la persona representada.
- d) Las personas que se hayan visto favorecidas por una o varias transmisiones patrimoniales, realizadas a título gratuito por la persona usuaria, en los cinco años inmediatamente anteriores a la solicitud de acceso al servicio, cuando la persona titular del servicio no pueda hacer frente al pago del precio público que le pudiera corresponder, tal y como se recoge en el artículo 57.6 de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales.

3.- Tarifa :

La tarifa máxima aplicable a las personas usuarias es la siguiente:

Hora en día laborable	15.-€
-----------------------	-------

4.- Cuadro de aportaciones



La aportación del usuario del servicio:

La aportación de la persona usuaria sobre el coste del servicio vendrá determinada por el siguiente cuadro de aportaciones:

<i>Ingresos IPREM</i>	<i>Ingresos SMI</i>	<i>Aportación</i>
≤120% IPREM	≤75% SMI	1,5%
>120%-125%	>75%-78%	4%
>125%-130%	>78%-81%	8%
>130%-150%	>81%-94%	15%
>150%-175%	>94%-110%	24%
>175%-200%	>110%-125%	35%
>200%-225%	>125%-140%	48%
>225%-250%	>140%-155%	61%
>250%-275%	>155%-170%	74%
>275%-300%	>170%-190%	87%
>300% IPREM	>190% SMI	100%

5.- Contabilización del patrimonio

Se establecen los siguientes límites patrimoniales en función del número de miembros de la unidad familiar.

Si no se superan dichos límites se les aplicará la tabla anterior, y si se superan dichos límites abonarán el 100% del precio público.

Nº miembros	Máximo patrimonial
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 ó mas	85.000.-€

6.- Cuantía de libre disposición

Se considerará como cuantía de libre disposición el importe referenciado al 100% del SMI. Si el número de integrantes de la unidad familiar o de convivencia fuere superior a uno, se añadirá a dicha cuantía el 40 % del SMI por el segundo miembro y un 30% del SMI por cada uno de los restantes miembros.



7.- Cobro

El cobro se efectuará mensualmente en base a la prestación efectiva del servicio.

7. CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA (SERVICIOS OBLIGATORIOS Y OPCIONALES): APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE Y CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN.

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo y Movilidad , el Pleno de esta Corporación, previa deliberación y con los votos a favor de todos los corporativos presentes, **ACUERDA:**

PRIMERO.- Aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto con varios criterios de adjudicación y con valor estimado igual o superior al umbral europeo, de prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza (servicios obligatorios y servicios opcionales), por importe de 154.748,08 euros al año, a los que se deberá repercutir 32.497,10 euros correspondientes al Impuesto sobre el Valor añadido y una duración de 1 año, que podrá ser prorrogado por otros 4 años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de 5 años.

SEGUNDO.- Aprobar el gasto por importe de 187.245,18 euros con cargo al Presupuesto 2019.

TERCERO.- Aprobar los Pliegos reguladores de la contratación mediante procedimiento abierto del presente contrato de servicios.

CUARTO.- Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación del presente contrato por procedimiento abierto, dando orden de que se proceda a la publicación del pertinente anuncio en el Diario Oficial de la Unión Europea -DOUE-, que precederá al anuncio en el Perfil del Contratante, para que dentro del plazo comprendido hasta el 21 de setiembre de 2018 se presenten las proposiciones que se estimen pertinentes.

DEBATE PREVIO A LA VOTACION:



Concedida la palabra, Josu Ezkurdia informa en términos muy generales las novedades que presentan los pliegos de la contratación, que en su mayoría se refieren a cuestiones medioambientales.

Nestor Arana, aprovechando que se va a sacar a licitación el servicio de limpieza viaria, plantea la posibilidad de hacer una campaña de concienciación para que la gente ensucie menos.

Josu Ezkurdia le responde que esa campaña estaría más vinculada con el servicio de recogida de residuos que presta la Mancomunidad y que, si bien en su día ya se hizo una propuesta de ese tipo, la iniciativa no resultó porque cada municipio tiene sus peculiaridades en la forma de prestar el servicio.

Rafa Bernal, tras ratificar los aspectos medioambientales de los pliegos, se muestra también partidario de realizar la campaña propuesta por Nestor.

8. CONTRATACIÓN DE SERVICIO DE CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE LAS ZONAS VERDES, PARQUE, JARDINES Y ARBOLADO DE PASEOS EXISTENTE EN ESKORIATZA: APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE Y CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN.

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo y Movilidad , el Pleno de esta Corporación, previa deliberación y con los votos a favor de todos los corporativos presentes, **ACUERDA:**

PRIMERO.- Aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto con varios criterios de adjudicación y con valor estimado igual o superior al umbral europeo, de prestación del servicio de conservación, mantenimiento y limpieza de las zonas verdes, parques, jardines y arbolado de paseos existentes en Eskoriatza, por importe de 113.032,06 euros al año, a los que se deberá repercutir 23.736,73 euros correspondientes al Impuesto sobre el Valor añadido y una duración de 1 año, que podrá ser prorrogado por otros 4 años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de 5 años.

SEGUNDO.- Aprobar el gasto por importe de 136.768,79 euros con cargo al Presupuesto 2019.

TERCERO.- Aprobar los Pliegos reguladores de la contratación mediante procedimiento abierto del presente contrato de servicios.



CUARTO.- Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación del presente contrato por procedimiento abierto, dando orden de que se proceda a la publicación del pertinente anuncio en el Diario Oficial de la Unión Europea -DOUE-, que precederá al anuncio en el Perfil del Contratante, para que dentro del plazo comprendido hasta el 21 de setiembre de 2018 se presenten las proposiciones que se estimen pertinentes.

9. RUEGOS Y PREGUNTAS.

Aitor Zubizarreta cursa las siguientes preguntas:

9.1.-Recorrido denominado "Gatzbidea"

Tras preguntar cómo está el asunto de la recuperación del recorrido que se conoce como "Gatzbidea", Josu Ezkurdia le responde que se está elaborando la documentación necesaria para solicitar al Gobierno Vasco una subvención que permita financiar el proyecto.

Nestor Arana se muestra partidario de abordar una primera fase, que dice podría ser la señalización del recorrido y el arreglo de los tramos que se encuentran inundados. Considera que cara a un futuro habría que ir planteando más actuaciones.

9.2.- Homenaje a la "Ikurriña".

Aitor manifiesta que su grupo ha hecho en general un balance positivo de las fiestas, pero que hay una cuestión con la que no están del todo de acuerdo. Dice referirse al acto de "homenaje a la Ikurriña", que no se organizó como un acto promovido unánimemente por toda la corporación. Considerando que ante actos de ese tipo existe un consenso total y absoluto de toda la corporación, dice que debiera de trasmitirse esa unión haciendo un llamamiento conjunto de toda la corporación al pueblo; así como que a su entender debiera de haberse hecho ese llamamiento a través de un BANDO.

Josu Ezkurdia, tras responder que se organizó como un acto más al que no se le dio ninguna publicidad especial, se muestra de acuerdo y acepta la propuesta de cara a un futuro.

9.3.- Presencia de autoridades del municipio de Espiel en actos de las fiestas de San Pedro.

Aitor, tras hacer saber que estando en un concierto tuvo conocimiento de que el Alcalde de Espiel participaba en alguno de los actos organizados en fiestas, pregunta: ¿Quién cursó la invitación? ¿cuánto supuso para las arcas municipales? ¿existe algún otro compromiso-hermanamiento con ese municipio?

Josu le responde: La visita vino en respuesta a otra visita que el Alcalde Eskoriatza, a título personal, cursó al municipio de Espiel y por el "eco social" que aquella visita tuvo entre los vecinos de Eskoriatza que son de allí. Ha supuesto un costo de unos 35 euros, y, en cuanto al Hermanamiento, no existe ni hermanamiento ni compromiso alguno por cuanto que de haberlo es al Pleno al que correspondería adoptar dicho acuerdo, y no se ha adoptado.



8.4.- Renuncia al cargo por el concejal Nestor Arana

Nestor Arana informa que por motivos laborales se ve obligado a dejar el cargo; que si bien la renuncia la presentará en breve, quiere aprovechar esta sesión para despedirse. Dice que ha trabajado muy a gusto, aunque el hecho de estar en la oposición no le haya permitido hacerlo tanto como hubiera querido.

El Alcalde le agradece tanto sus palabras como la labor desempeñada durante el tiempo en que ha estado ejerciendo el cargo.

Una asistente de entre el público, Maider Otamendi, quien dice hablar en nombre de EH BILDU de Eskoriatza, le agradece la labor desempeñada y muestra su pesar porque el partido tenga de prescindir de su persona y servicios.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:00 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.